
ERROTULUAK ETA IRUDI KORPORATIBOA EUSKARATZEKO DIRULAGUNTZAK

Hizkuntza paisajeak berebiziko garrantzia du hizkuntza erabiltzean. Kale eta bide seinaleek eragin handia dute hizkuntzaren normalizazioan. Enpresa, denda, taberna edo entitate batera sartzean, errotulazioak berebiziko garrantzia du bezeroak erabiliko duen hizkuntza aukeratzeko orduan.

Hori dela eta, Arrasateko kaleen izenak eta bide seinaleak euskaraz jartzea erabaki zuen Arrasateko Udalak orain dela urte batzuk. Beste alde batetik, denda, saltoki, taberna eta, oro har, entitateetako errotuluak eta irudi korporatiboa euskalduntzeko dirulaguntzak ematen ditu Arrasateko Udalak.

Hortaz, bada, bi ataletan jaso ditzakezu hizkuntza paisajea euskalduntzeko dirulaguntzak: alde batetik, zure entitateko errotulua euskaraz jartzeko eta, bestetik, zure entitatearen irudi korporatiboa euskalduntzeko.

Euskara Zerbitzuan aurkeztu behar da dirulaguntza eskabidea.

Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak.

- Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak.

Errotulua euskara hutsean jarriz gero, kostuaren %50 ordainduko dizu Udalak. Dirulaguntza, gehienez ere, 50.000 pezetakoa izango da.

- Errotuluak euskaraz eta gaztelaniaz jartzeko dirulaguntzak.

Errotulua euskaraz eta gaztelaniaz jarriz gero, kostuaren %10 ordainduko dizu Udalak. Dirulaguntza, gehienez ere, 10.000 pezetakoa izango da. Edozein kasutan, euskarazko testuari lehentasuna eman beharko zaio kokapen, neurri edota intentsitateari dagokionez.

- Baldintza hauek bete behar dira dirulaguntza jasotzeko:

- Errotuluan izen eta deiturak besterik agertzen ez direnean, ez da inolako dirulaguntzarik emango.

- Errotuluko testuak zuzen idatzita egon beharko du.

- Izaera ez ofizialeko entitateek bakarrik jaso ahal izango dituzte dirulaguntza hauek.

Irudi korporatiboa euskalduntzeko dirulaguntzak.

- Zure entitatearen irudi korporatiboa euskaldunduz gero, kostuaren %50 ordainduko dizu Udalak. Dirulaguntza, gehienez ere, 20.000 pezetakoa izango da.

- Kostuaren %15eko dirulaguntza ematea irudi korporatiboa euskaraz eta gaztelaniaz jartzen dituzten entitateei. Dirulaguntza, gehienez ere, 15.000 pezetakoa izango da.

- Arrasateko Udalak hauek hartzen ditu irudi korporatiboaren elementutzat:

- Kartazalak
- Membretedun orriak.
- Bisita txartelak.

- Entitatearen identifikazio zigilua.
- Albaran, fakturak...
- Ibilgailuen errotulazioa.

- Baldintza hauek bete behar dira dirulaguntza jasotzeko:

- Testuak zuzen idatzita egon behar du.
- Izaera ez ofizialeko entitateek bakarrik jaso ahal izango dituzte dirulaguntza hauek.